

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### Epea irekitzea 2020ko udal zergak eta tasak kobratzeko

Jakinarazten da 2020ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, hauen ordainagiriak:

- Hiri OHZ: bigarren ordainketa: ordainagiriaren ehuneko 50.
- Landa OHZ.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
- Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa.

#### 1. Ordaintzeko epea:

##### A. Borondatezko epea:

- Hiri eta landa OHZ: 2020ko azaroaren 1etik abenduaren 15era.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: 2020ko abenduaren 1etik 31ra.
- Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa: 2020ko abenduaren 1etik 31ra.

##### B. Betearazte aldia: 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera administrazio

premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, eta dagokion errekargua, berandutze interesak eta, hala badagokio, sortzen diren kostuak aplikatuko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergen orokorrak, 28. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### 2. Ordaintzeko tokia eta modua:

##### A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

##### B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek aukera hauek dituzte zerga ordaintzeko.

- Kutxabank entitatean:
- Kutxazainean ordaindu, txartela edo libreta erabiliz.
- Urrutiko bankaren bitartez ordaindu.
- Bulegoren bateko leihatilan ordaindu (ordutegi jakin bati lotuta).
- Online ordaindu: Eusko Jaurlaritzaren ordainketa pasabidean, txartela erabiliz.
- Udal bulegoetan.

#### 3. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, eta interesdunari jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak Aiara Udalaren bulegoetan izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2020ko urriaren 16a

*Alkate-lehendakaria*

*GENTZA ALAMILLO UDAETA*